



24. KORRIKAK euskararen ezagutza unibertsala aldarrikatu du Iruñean

AEKk 24. KORRIKAREN aurkezpen soziala egin du gaur (martxoak 5), Iruñean; bertan, euskararen ezagutza unibertsala eta helduen euskalduntzea jarri ditu lehen lerroan. Agerraldian, antolatzaileek azpimarratu dute 15 egun baino ez direla falta Korrika abiatzeko; horregatik, aktibazioarako deia luzatu diote komunitate osoari.

Xabi Gartzia AEKren Nazio Kontseiluko kideak nabarmendu duenez, “Euskaldunon komunitateari euskararen ezagutza unibertsala zor zaio”. Haren hitzetan, KORRIKAK Euskal Herri osoan herritar guztek euskaraz eroso bizitzeko eskubidea aldarrikatzen du, eta, horri begira, ezinbestekoak dira hizkuntza-politika eta erreminta “ausart eta sendoak”, doakoak eta guztiontzat eskuragarriak, xede dutenak hezkuntza, transmisioa eta helduen euskalduntzea bermatzea.

Aurtengo leloa, **EUSKARA GARA**, komunitatearen izaera irekia eta askotarikoa azpimarratzeko hautatu dute. Ane Elordi Korrikaren arduradunak azaldu duenez, “Euskara ez da muga, arnasa baizik; zubi gisa landu behar da, kohesio sozialerako tresna moduan”. Haren esanetan, jatorria edo ezagutza-maila edozein dela ere, denontzako lekua dago euskararen herrian.

2180 kilometro eta 3436 lekuko-hartze

24. KORRIKA Atharratetik abiatuko da, eta 2180 kilometro egingo ditu Euskal Herrian barrena, 3436 lekuko-hartze egingo dituztela —inoiz baino gehiago—. Antolatzaileek aurreratu dutenez, edizio honetan hainbat ekimen eta keinu berezi izango dira, tartean bestelako aldarri sozialak eta, nola ez, Errigora aurtengo omenduari lotutako ekitaldiak.

Elordik gogorarazi du Korrika jaia eta aldarrikapena dela aldi berean: “Ez gara folklore, euskara gara”, berretsi du, eta herritarrei dei egin die, Korrikan parte hartzera ez ezik, haren mezua urte osoan zabaltzera ere.

Korrikaren koordinatzaileak azaldu duenez, KORRIKAK bildutako baliabide ekonomikoak oro euskararen normalizazioaren aldeko lana indartzera bideratuko dira. Hala ere, AEKren ordezkariak ohartarazi dute ezinbestekoa dela instituzioen inplikazioa eta hizkuntza-politika eraginkorrak garatzea, euskararen biziberritzean jauzi berria egiteko.

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus



“Euskararen etorkizuna jokoan dago, eta guztion esku dago eragitea”, adierazi du Elordik amaieran. 24. KORRIKA badator, eta AEK-KORRIKAko antolatzaileen berbetan, “Denoi dagokigu euskaltzaletasuna lehen lerrora ekartzea”. Bada unea euskarari Pizkunde berri bat emateko.

ARABA
Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA
Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA
Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA
Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA
Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus